

DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAK ETA HIZKUNTZA GUTXITUETAKO HEDABIDEAK: EUSKO JAURLARITZAK 2005-2013 EPEALDIAN EUSKARA HUTSEZKO HEDABIDE INPRIMATUEI ESKAINITAKO DIRU-BALIABIDEEN AZTERKETA

Tesiaren egilea: Miren Elixabete Larrinaga Artetxe

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Politika eta Administrazio Zientzia Saila

Tesi-zuzendaria: Francisco Juaristi Larrinaga

Tesiaren laburpena:

Doktore-tesiaren objektua diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabide inprimatuak dira. Ikerketa-eremu zabal horretan, lanak arreta jarri du Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian, urte biak barne, euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskaini eta esleitu dizkien diru-laguntzetan.

Euskara hutsezko hedabideak laguntzeko lehen deialdi publikoa 1984ko abuztuaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen. Hitz hauekin jaso zuen xedea: «Eusko Legebiltzarrak, 1982.eko Azaroaren 24an onartu zuen Euskararen Normalizazio-Legeak, komunikabideak euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen duenez eta, euskal aldizkarien eta irakurlegoaren ezaugarriak kontuan harturik, aurtengo deialdi honen laguntzen oinarria aldizkarien zabalkundea handitzea da». Hamarkadak joan dira ordutik, eta deialdiak hainbat gorabehera izan ditu denboran zehar. Horiek guztiak aurkezten ditu ikerketak, baina egileak 2005-2013 urteetara zuzendu du fokua, bi arrazoik bultzatuta: batetik, diru-laguntzak esleitzeko irizpideak sinplifikatu eta egonkortu egin dira 2005etik aurrera eta ia aldaketarik gabe eutsi zaie 2013ra arte. Horri esker, errazagoa da ikerketak lehengaitzat dituen datuen arteko konparaketa eta irakurketa-zeregina. Bestetik, 2005etik aurrerakoak dira ikerketaren abiapuntuko aterpe teorikoa eraikitzeko ezinbestekoak izan diren euskarazko hedabideen ezaugarriak, kontsumoari eta kontsumitzaileei buruzko azterketa gehientsuenak.

Lanak helburu hirukoitza ezarri du:

1. Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 bitartean euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko sustatu dituen diru-laguntza deialdien azterketa deskriptiboa egitea. Ahalik eta modurik zehatzenean bildu, egituratu eta azaldu da deialdietako informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa.

2. Eusko Jaurlaritzak eskainitako diru-laguntzak eskatu dituzten euskara hutsezko hedabide inprimatuek 2005-2013 bitartean izan duten bilakaera ezagutzea. Horretarako, horien «erradiografia» egin da, ondoko datuei erreparatuta: aurrekontuak, autofinantzaketa-mailak, maiztasunak, orrialde-kopuruak, botaldiak eta salmentak.
3. Urteroko diru-laguntza deialdia kudeatzen duen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektoreak denboran zehar izan duten harremana ezagutu eta, horrekin batera, batzuek zein besteek deialdiari buruz duten ikuspegia jasotzea.

Diseinu metodologikoari dagokionez, hiru zutabe dituen estrategia hautatu eta garatu da ikerketa-objektuaren ahalik eta dimentsio gehienei heltzeko asmoz. Lehenik eta behin, informazio-iturri ez zuzenak erabili dira: urteroko diru-laguntza deialdiak eta ebazpenak, laguntzak kudeatzen dituen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak esleipenak egiteko prestatu dituen arazketa-taulak eta hemerrotekatik jasotako era askotako materiala. Bigarrenik, elkarrizketa sakonak egin dira diru-laguntza politiken nondik norakoak eta euskara hutsezko hedabide inprimatuen bilakaera sakon ezagutzen duten ordezkari erreferentzialekin. Eta hirugarrenik, Deplhi teknika erabili da euskara hutsezko paperezko hedabideen esparruko aktore bakoitzaren ikuspegia jasotzeko eta, aldi berean, banakako ikuspegiaren arteko adostasunak eta desadostasunak identifikatu eta kontrastatzeko. Argitu beharra dago ikerketa-teknika bakoitzak beste biak elikatuz funtzionatu duela.

Tesiak ondorioztatu du Eusko Jaurlaritzak eskainitako diru-laguntza funtsezko baliabide ekonomikoa izan dela euskara hutsezko hedabide inprimatuentzat; izan ere, diru-sarrera hori gabe zailtasun handiak izango lituzkete jarduerari eusteko. Laguntzak berebiziko garrantzia izan du eguneroko prentsa inprimatuaren kasuan. Aurreko baieztapenari erabat loturik daude lanaren beste bi ondorio: batetik, aztertutako diru-laguntza publikoak euskara hutsezko hedabide inprimatuen eskaintza kuantitatiboari eusten lagundu dio, baina bestetik, 2005-2015 bitarteko deialdiek ez dute lortu ezarritako helburua betetzea, alegia, euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzea. Gainera, ikerketak agerian utzi du Eusko Jaurlaritzak eta euskara hutsezko hedabide inprimatuen sektorea soka-tira ariketa batean murgilduta ibili direla lanak objektutzat hartu duen denbora-tartean; 2005-2013 epealdian, ez da batzuen eta besteen arteko lankidetzaren oinarriak finkatzerik lortu, nahiz eta batzuek eta besteek etorkizunerako lehentasuneko erronka gisa kontsideratu lankidetzak.

Tesi honekin, egileak ekarpena egin nahi izan dio hizkuntza gutxituetako hedabideen ikerkuntzak oraindik gutxi jorratu duen azterketa-lerro bati; zehatzago esateko, hizkuntza gutxituetan ari diren hedabideei eskainitako diru-laguntza publikoak erdigunean kokatzen dituen azterketa-arloari.